

BERTARATUAK- ASISTENTES

Alkate-Udalburu Ordea

María Arantzazu Iregui Villar

Zinegotziak

Jose María Herce Isasmendi
Jose Angel Petralanda Gil
Igor Ezpeleta Oregi
Aitor Urrutia Oianguren
Iñaki Madinabeitia Elorza
Juan Luis Merino Sanabria.

Idazkaria. Edurne Iturbe Lascurain.

Eskoriatzan, bi mila eta hamahiruko ekainaren 25ean, arratsaldeko seiak eta erdietan, Udaletxeko Osoko Bilkuren aretoan, Beinat Herce Leceta alkate jauna buru dela eta goian aipatutakoak bertan direla bildu da Udalbatzarra, Ohiko bilkurana, gai-zerrendan zehaztutako gaiei buruz hitz egiteko. Ez dira etorri Herce jauna, Cantero jauna eta Arcauz andrea.

En Eskoriatza, siendo las dieciocho horas y treinta minutos del día 25 de junio de 2013, en el Salón de Plenos de la Casa de Consistorial quedó constituido el Pleno de la Corporación en sesión ordinaria bajo la Presidencia del Señor Alcalde- Presidente D. Beinat Herce Leceta ,con la asistencia de los señores que arriba se expresan para tratar de los asuntos reseñados dentro del Orden del Día. No asisten los Srs. Herce y Cantero y la Sra. Arcauz.

1. AURREKO BILKURETAKO AKTAK ONARTZEA.

Ez dago.

2.- ALKATEAREN ADIERAZPENAK.

2013ko ekainaren 20ra arte Alkateak hartutako erabakien berri eman eta horien laburpenen kopia banatu da.

Ondoren transkribatzen diren erabakien berri eman da berariaz:

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: B 13/00666

DATA: 2013/06/04

GAIA: KREDITU ALDAKETA ZKIA 12

ESPEDIENTEA: 2013KKRA0009

GAIA: Kreditu gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako 12 zenbakidun espedientea onartza

UDAL honetako Aurrekontuari eragiten dion Kreditu Gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea ikusita.

IDAZKARI-KONTUHARTZAILEAK egindako txostenak dioenez, aipatutako expedientea aplikagarria zaison araudiai egokitzent zaio, eta zehazki Gipuzkoako Lurralde Historikoko Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauaren 34. artikuluan ezarritako beharkizun eta tramiteei.

Aurreko guztia kontutan izanik, eta Foru Arauaren 34.3 artikuluan eta 2013ko ekitaldirako onartutako Aurrekontua Gauzatzeko Arauaren 6-1 artikuluan jasotako eskumenak erabilita, Alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DA

Lehena.- UDAL honen aurtengo ekitaldiko Aurrekontuari eragiten dion Kreditu Gehigarrien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako expedientea onestea, proposamenaren eta ondoko kapitulukako laburpenaren arabera:

KREDITU GEHIKUNTZAK

Kapituluak	Izena	Gehikuntzak
6	Inbertsio errealak.	4.200,00
GEHIKUNTZAK GUZTIRA...		4.200,00

FINANTZATZEN DITUZTEN BALIABIDEAK

Kapituluak	Izena	GEHIKUNTZAK
8	Finantza Aktiboak	4.200,00 €
	GUZTIRA	4.200,00 €

Bigarrena.- Udal Batzarrari hurrengo bileran erabaki honen berri ematea.

Eskoriatzan, 2013ko ekainaren 4an. ALKATEA

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: B 13/00683

DATA: 2013/06/12

GAIA: KREDITUA ALDAKETA 13

ESPEDIENTEA: 2013KKRT0004

INTERESDUNA: ESKORIATZAKO UDALA

Gastuen aurrekontu partiden arteko transferentzien bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea aztertu dugu, hain zuen, 13 zenbakiarekin identifikatua eta Udal honen aurtengo aurrekontuari eragiten diona.

Idazkari-Kontuhartzaileak idatzitako txostenaren arabera, aipatutako espedientea aplikagarria zion araudiari egokitzen zaiola ikusi dugu eta, zehazkiago, Toki Erakundeen Aurrekontuei buruzko abenduaren 19ko 21/2003 Foru Arauak 29. artikuluan ezarritako beharkizunei egokitzen zaiola

Arestian aipatutako Foru Arauak 29. artikuluaren 3 eta 4. apartatuetan ematen dizkideten eskuenez baliatuz, hau

EBATZI DUT"

Lehenik.- Proposamenean zerrendatzen diren gastuen aurrekontu partiden arteko transferentzia bidez egin beharreko kreditu aldaketarako espedientea onestea, Udal honen aurrekontuari dagokiona, kapitulukako ondoko laburpenaren arabera:

Transferitutako kredituak biltzen dituzten gastuak (bajak)

Gehitutako kredituak biltzen dituzten gastuak (altak)

Kapitulua	Izena	Hasierako kreditua	Gehikuntza	Amaierako kreditua
1	Pertsonalaren gastuak	1.475.294,11		1.475.294,11
2	Ondare arruntak eta zerbitzuak eros.	2.639.570,27		2.639.570,27
3	Gastu finantzarioak	19.539,96		19.539,96
4	Transferentzia arruntak	559.653,11	2.000,00	561.653,11
6	Inbertsio errealak	1.336.111,34		1.336.111,34
7	Kapital transferentiak	149.491,09		149.491,09
8	Aktibo finantzarioak	62.723,41		62.723,41
9	Pasibo finantzarioak	439.272,54		439.272,54
	GUZTIRA	6.681.655,83	2.000,00	6.683.655,83

Bigarren.- Egintza hau bestelako tramiterik gabe irmo eta betebeharrekoan denez gero, bidezkoa da onetsitako kreditu aldaketa Fondoen Kontuhartzaitza Zerbitzuek kontabilitatean berehalako ondorioekin isladatzea, Udalbatzarrari egiten duen lehen bilkuran egintza honen berri ematea eragotzi gabe.

Eskoriatza, 2013ko ekainaren 12an.

ALKATEAK

ALKATEAREN ERABAKIA

ZENBAKIA: B 13/00677

DATA: 2013/06/10

GAIA:

HILERRIKO PARKERAKO LURZATIA EROSTEA (Leceta Villar)

ESPEDIENTEA: : 2013IOSE0001

INTERESDUNA: ESKORIATZAKO UDALA,

Irene Leceta Villar andrearen jaraunsleek HIE “15” Hilerrian duten lurzatia (katastroko errefrentzia: 3863052) jabetzan eskuratzeko irekitako expedienteetan interes zuzena izan dezaket lurzatiaren titularrak senide ditudalako.

Horregatik, eta legez eman zaizkidan ahalmenak erabiliz, bereziki AJAko 43. artikuluan ezarritakoaren arabera, Alkate naizen honek honako hau

ERABAKI DUT

LEHENENGOA.- Aipatutako expedienteetan, eta expedientea erabaki arte, Arantza Iregui Villar zinegotzi andrea izendatzea nire ordez, Alkatearen ordez, aritzeko indarrean dagoen legediak Alkateari emandako baldintzetan eta funtzioberekin, eta baita beharrezko diren dokumentu publiko edo pribatu guztiak sinatzeko ere.

Eskuordetzearen eraginkortasuna higiezinaren salerosketa gauzatzeko egin beharreko gestioek diraute denborara mugatuko da, eta eskuordetzeak Alkateak eskuordetu ahal dituen ahalmen guztiak hartuko ditu, baita hirugarrenetan eragiten dizkien egintzak egitekoak ere.

BIGARRENA.- Erabaki honi buruzko iragarki bidaltzea Gipuzkoako Aldizkari Ofizialera, AJAko 44.2 artikuluan ezarritakoaren arabera; eta iragarkia udaletxeko iragarki oholean eta udal webgunean jartzea, erabaki hau sinatzen den biharamunetik eskuordetzeak izango duen eraginaren kaltetan gabe.

HIRUGARRENA.- Erabaki honen berri ematea Udalbatzarrari hurrengo ohiko bilkuran.

Eskoriatza, 2013ko ekainaren 10a.

ALKATEA,

3.- GAI ZERRENDAN HAINBAT GAI SARTZEA BERRESTEA.

Jarduneko udalburu Iregui andrearen proposamenez, ez da berretsi inolako gairik sartzerik.

4.- “SANTA MARIÑE” HIE-N APARKALEKUTARAKO ERABILTZEKO LURZATIAK ALOKATZEKO KONTRATUA BERRESTEA.

Eskoriatzako herri guneko mugikortasunari buruz egindako diagnostikotik, eta zehatzago, gune historikoaren inguruari buruzkotik, honako hau ondorioztatzen da:

- Herri gunean gehiegi erabiltzen dira motordun ibilgailuak bidaia motzetarako.
- Eskoriatzarrek beraien etxebizitzatik edo herriko dendetatik ahalik eta gertuen aparkatzea gura izaten dute.

Horrek guztiorek behar beste aparkaleku ez egotea dakar, bai denbora gutxirako aparkatzeko bai denbora lutzerako. Herritarrek behin eta berriz egiten duten kexa da, eta gabezia horrek eragin negatiboa du herritarren eguneroko bizitzan, ohiko trafikoan, oinezkoengan, herriko merkataritzan eta ekipamendu publikoen funtzionamendu normalean.

Udalak arazoa konpontzeko interesa du, eta hartu beharreko neurrien artean, orube baten zati bat doaneko aparkalekua egiteko egokitzea proposatzen du, biztanle-aparkaleku ratio txikienerako guneei zerbitzua emateko. Helburu horretarako espazio publiko librerik ez dagoenez, eta ezta erabili horretara lotu daitekeen udal jabetzko lurrik ere, jarraian deskribatuko den jabetza pribatuko lurzatiak alokatzea proposatzen da,

1.- ARBIETXE S.L., GUNEKA S.L. eta RAZKIN ERAIKUNTZAK S.L. enpresak Santa Marina 9 HIEko exekuzio unitatea birpartzelatzeko proiektutik ateratako eta herrigunean dauden ondorengo lurzatiien jabeak dira:

“I” lurzatia: “Santa Marina” 9. Hirigintzako Esku Hartze Arearen Barne Eraberrikuntza Planak egindako antolaketaren zati da, “a.20/2” bezala agertzen da, egoitza erabilerarako, eta eremuko ipar-ekialdean kokatuta dago. 276 m²-ko azalera du eta bere osotasunean eraikigarria da.

“J” lurzatia: “Santa Marina” 9. Hirigintzako Esku Hartze Arearen Barne Eraberrikuntza Planak egindako antolaketaren zati da, “a.20/2” bezala agertzen da, egoitza erabilerarako, eta eremuko ipar-ekialdean kokatuta dago. 276 m²-ko azalera du eta bere osotasunean eraikigarria da.

“K” lurzatia: “Santa Marina” 9. Hirigintzako Esku Hartze Arearen Barne Eraberrikuntza Planak egindako antolaketaren zati da, “a.20/2” bezala agertzen da, egoitza erabilerarako, eta eremuko ipar-ekialdean kokatuta dago. 1.270 m²-ko azalera du eta bere osotasunean eraikigarria da.

Aipatutako lurzatiiek ez dute gaur egun inolako erabilerarik eta jabeak prest daude horiek Udalari lagatzeko, betiere, lagapen horrekin irabazirik lortu ezta ere, lurzatiien jabetzak dakartzan kostuak ordainduz gero, esate baterako, Ondasun Higiezinen gaineko Zerga.

Aurrez negoziatu ondoren, Alkatetza ados jarri da jabeekin, eta hori 2013ko ekainaren 5ean formalizatutako kontratu pribatuan gauzatzen da.

Aurrez esandako guztia ikusita, Hazienda batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Aurrekarietan deskribatutako lurzatiak alokatzeako 2013ko ekainaren 5ean ARBIETXE S.L., GUNEKA S.L. ETA RAZKIN ERAIKUNTZAK S.L. enpresekin formalizatutako alokairu kontratua BERRESTEA. Lurzati horiek aipatutako enpresen jabetzakoak dira ondorengo portzentajeetan:

I LURZATIAREN jabeak	Lurzatian duen partizipazioa
ARBIETXE SL	%45,74
GUNEKA S.L.	%54,26
J LURZATIAREN jabeak	Lurzatian duen partizipazioa
GUNEKA S.L.	%100,00
K LURZATIAREN jabeak	Lurzatian duen partizipazioa
GUNEKA S.L.	%13,84
ARBIETXE SL	%18,81
CONSTRUCCIONES RAZQUIN	%67,35

Bigarrena.- 6.481,01 euroko gastua onartzea 0102.200.511.00.01 partidaren kargura. Diru hori kontratuaren lehenengo urterako 3 lurzatietarako hitzartutako alokairu prezioa da (% 21eko BEZ barne).

Hirugarrena.- Hitzartutako baldintzak betetzeko, alokairua berehala ordaintzeko agintza, betiere, errentatzaile bakoitzak dagokion faktura aurkeztu ondoren. Kontratuaren indarraldiko lehen urtean errentatzaile bakoitzari ordaindu beharreko prezioa honako hau da:

I LURZATIA	JASO BEHARREKO DIRU KOPURUA (€)
ARBIETXE SL	476,41
GUNEKA S.L.	565,15
J LURZATIA	
GUNEKA S.L.	1.041,56
K LURZATIA	
GUNEKA S.L.	453,00
ARBIETXE SL	615,66
CONSTRUCCIONES RAZQUIN	2.204,43

5.- ONARTUTAKO ESKUBIDEEI BAJA EMATEA.

Ogasuna batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Lehenengoa.- Baja ematea aurreko ekitaldietan onartutako eskubide hauei, eta kobrautakoa itzultzeko agintzea.

ERREZIBOA	ZENBATEKOA (€)	ZERGADUNA	ZERGATIA
IBI2012/ 0035633N	67,53	José I. ULLIBARRI ARANA ERRASTI	Obra berriko erreziboaz ordezkatzen da.
IBI2010/6132477	5342,44	TALLERES ESCORIAZA, S.A.	Obra berriko erreziboaz ordezkatzen da.
IBI2011/6132477	5551,59	TALLERES ESCORIAZA, S.A.	Obra berriko erreziboaz ordezkatzen da.
IBI2012/6132477	5831,97	TALLERES ESCORIAZA, S.A.	Obra berriko erreziboaz ordezkatzen da.
IBILGAILUA2010/2626	166,43	Aniceto VILLAR OTADUY	Nekazal ibilgailua.
IBILGAILUA2011/2640	169,59	Aniceto VILLAR OTADUY	Nekazal ibilgailua.
IBILGAILUA2012/2715	183,79	Aniceto VILLAR OTADUY	Nekazal ibilgailua.
URA2012/03/240	460,21	José M. BALBAS ZAMORANO	Irakurketaren akatsa
URA2012/03/549	37,90	Alejandro ENCINA OYON	Errezibo bikoiztua

Bigarrena.- Kontuan izanik TALLERES ESKORIATZA S.A. enpresaren aurrean aitortutako eskubideei baja emateko arrazoia eraikinari alta emateagatik (lehen orubea bakarrik zegoen jasota) zergaren kitapen berria egitea izan dela, ez da dirurik itzuliko kitapen berriak kobrautu direla egiaztatu arte. Hori guztiori konpentsazioren bat egitearen kaltetan gabe.

6.- EAE-TIK KANPOKO ESPETXETAN DAUDEN PRESOEN SENIDEEI ETA EAE-TIK KANPOKO EPAITEGIETARA AUZIPETU BEZALA JOAN BEHAR DIREN ESKORIATZARREI GARRAIORAKO DIRU LAGUNTZA INDIBIDUALAK EMATEKO OINARRIAK ONARTZEA.

Jarduneko udalburuaren, Gizarte Zerbitzuetako batzorde informatzailekoa ere dena, gaia azterzeke gelditzen da, oinarriak hobeto aztertu behar direlako batzordean.

7.- BAKE EPAILE TITULARRA IZENDATZEKO PROPOSAMENA.

Bake epaile titularra eta ordezkoia aukeratzea Udalbatzarrari dagokio.

2013ko apirilaren 30ean Udalbatzarrak hautaketa irizpideak onartzea erabaki zuen eta lehiaketa deitu zen 2013ko maiatzaren 9ko Gipuzkoako Aldizkari Ofizialean (50. zenbakia), argitaratutako iragarkiaren bidez eta baita Udaletxeko iragarki oholean eta epaitegian jarritako iragarki bidez ere.

Eskaerak aurkezteko 15 eguneko epean pertsona bakarrak aurkeztu du eskaera.

Epaimahai kalifikatzaileak egindako proposamenaren arabera, eta bertaratutako udalbatzarkide guztiak aldeko botoekin, legeak eskatzen duen gehiengo absolutuaren quorama osatuta, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI du:

“Ibon Viteri Zubia jauna Eskoriatzako bake epaile titular aukeratzea eta bere izendapena proposatzea Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Goreneko Gobernu-aretoari; eta horrekin batera, proposatutako epailearen inguruabarren berri ematea”.

8.- KALEAK GARBITZEKO KONTRATUA LUZATZEA.

Hirigintza batzorde informatzaileak egindako proposamenaren arabera, Merino jaunak aurka bozkatuta, eta bertaratutako gainerako udalbatzarkide guztiak alde, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

LEHENENGOA.- Kaleak garbitzeko zerbitzua emateko kontratua luzatzea urtebetetan, 2013ko abuztuaren 15etik kontatzen hasita, baldintza agiriko 5. baldintzan eta Sektore Publiko Kontratuari buruzko Legearen Testu Bategina onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 Legegintzako Errege Dekretuko 23. artikuluan ezarritakoaren arabera.

BIGARRENA.- Luzapen aldirako prezioa honako hau izango da:

- 2013ko abenduaren 31ra arte: kontratuaren prezioa 9.964,71 € hileko izaten jarraituko du.
- 2014ko urtarrilaren 1etik aurrera: baldintza agiriko 6. baldintzan ezarritakoaren arabera, prezioa aurreko urte naturalean Espanian izandako kontsumoko prezioen indizearen arabera eguneratuko da.

HIRUGARRENA.- Aipatutako luzapenari dagokion gastua baimentzea eta lotzea udal aurrekontuko dagokion partidaren kargura.

Merino jaunak bere bota justifikatzeko esan du azken bi agintaldietan, biak ala biak ezkerrekoak, Udalak ez duela bere gain hartu inolako zerbitzurik, Udalak bere gain har ditzakeen zerbitzu bakanei luzapenak egiten zaizkiela, eta dena asmo hutsean gelditzen dela.

9.- KIROL JARDUEREN ZERBITZUA KUDEATZEKO KONTRATUA ALDATZEA.

Kultura batzorde informatzaileak egindako proposamena ikusita, eta bertaratutako udalbatzarkide guztien aldeko botoekin, Udalbatzarrak honako hau ERABAKI DU:

Bere garaian GOIENA SPORT enpresari esleitutako kirol zerbitzuak emateko kontratua ondoren adieraziko den modura aldatzea onartzea. Zehazki, sorospen zerbitzu aldatzen da, eta ondorengo ordutegia izango du ekainaren 15etik aurrera:

- **Ekainaren 15etik uztailaren 28ra, eta irailaren 2tik 15era**

ASTELEHENETIK OSTIRALERA: Barruko igerikekua: 8:00-20:00

Kanpoko igerikekua: 10:00-20:00

LARUNBATEK: Bi igerilekuak: 10:00-20:00

IGANDE ETA JAI EGUNETAK: Bi igerilekuak: 10:00-13:00

- **Uztailaren 29tik irailaren 1era, bi igerilekuak:**

ASTELEHENETIK OSTIRALERA: 10:00-19:00

ASTEBURU ETA JAI EGUNETAN: 10:00-13:00

**10.- EZKER ANITZA-IZQUIERDA UNIDAK AURKEZTUTAKO MOZIOA
HAURDUNALDIA BORONDAZ ETETZEA ERABAKITZEKO EMAKUMEEK
DUTEN ESKUBIDEARI BURUZ.**

Merino jaunak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapen zatia irakurri du.

AZALPENA:

Emakumeen erabakitzeko eskubidea mugimendu feministaren borroka historikoaren oinarria da. Borroka horrek ibilbide luzea izan du gure herrian. 1985ean abortatza despenalizatu egin zen zenbait kasutan, eta 25 urte pasa behar izan ziren, 2010era arte itxaron behar izan gennuen, haurdunaldia borondatzet eteteko legearen aldaketa zertxobait aurrerakoagoa izateko, baina, hala ere muga askorekin.

Orain, PP, justiziako bere ministroaren bidez, eztabaidea faltsu eta engainagarria irekitzen saiatzen ari da, baina ezin gara horretan sartu behar. Emakumeek beraien amatasunari buruz era-bakitzeko duten eskubidea ezin da aztertu emakumeek libreki erabakitzeko duten eskubidetik kanpo.

Emakumeek beraien amatasunari buruz erabakitzeko duten eskubidea, hau da, ama izatea gura duten edo ez, oinarrizko eskubidea da; eta oinarrizko eskubidea denez, ezin da elizako eta gizarteko estamentu atzerakoienekin elkartrukerako erabili.

Emakumeek ez dute behar izaki heldugabe eta babesgabe mailara zokoratuko dituzten babes-legerik. Emakumeak eskubide osoko subjektuak dira, eta, beraz, gaitasuna dute beraien kabuz eta independenteki beraien erabakiak hartzeko. Ezin dugu onartu PP-k berriz ere emakumeak ama, emazte eta zaintzaile eginkizunetan jartzea.

Haudunaldia borondatzet eteteko eskubidea defendatzen dugu, emakumeek libreki erabakitzeko eskubidea, inolako interferentzia, baldintza, zaintza edo zigorrik gabe.

ERABAKIAK:

1) Spainiako gobernuari eskatzea/exijitzea ez erasotzeko emakumeen oinarrizko eskubideak eta EZ aldatzeko, murriztuz, gaur egun indarrean dagoen 2/2010 Lege Organikoa, sexu- eta ugalketa- osasunari eta haurdunaldia borondatzet eteteari buruzkoa.

2) Indarrean dagoen testuan onartutako eskubideak zabaltzea, gutxienez, Emakumeak Kon-gresuaren Aurrean Plataformaren manifestuan hainbat emakume taldekin eskatzen duten bezala, ondorengo gaiak ere onar daitezen:

Borondatzeko abortua despenalizatzea, Zigor Kodean egun duen zigorra kenduz.

Emakumeei, gazteak barne, gaitasun osoa bermatzea beraien amatasunari eta beraien bizitza-ri buruzko erabakiak hartzeko

Administrazio egoera irregularrean dauden emakume immigrantei haurdunaldia borondatzet eteteko osasun-prestazioak emango zaizkiela bermatzea.

Osasun sare publikoan haurdunaldia borondatzet eteteko prestazioa benetan bermatuko duen protokolo komuna Osasun Sistema Nazional osorako, lurralte ekitatearekin, prestazio hori ja-sotzea eta gertutasuna antzera bermatzeko lurralte guztietan.

Eskoriatzan, 2013ko ekainaren 17an

Proposamena irakurrita, hitza eskaini da, eta ez du inork hitz egin.

Mozioa bozkatuta, onartu egin da Madinabeitia jauna abstentuta eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek alde bozkatuta.

11.- EKAINAREN 28A LGTBI-EN (gayen, lesbianen, bisexualen, transexualen eta intersexualen) HARROTASUNAREN NAZIOARTEKO EGUNA DELA-ETA, EZKER ANITZA-IUK AURKEZTUTAKO MOZIOA.

Merino jaunak ondoren osorik transkribatzen den mozioaren xedapen zatia irakurri du.

ARRAZOIEN AZALPENA

Datorren ekainaren 28an LGTBI harrotasunaren eguna ospatuko da. Egun horrek orain dela 45 urte New Yorkeko Stonewall auzoan gertaturikoak gogoratzen ditu, gertaera haien erreferente historikoa izan baitziren gay, lesbiana, bisexual, transexual eta intersexualek beraien esku-bideak eta askatasunak aitortzearen aldeko borrokan.

Borroka horretan leku nabarmena dute LGTBI elkarrekin, urteetan zehar lortzen joandako aurrapen garrantzitsuen protagonista izan direlako, baina, baita gaur egun LGTBI pertsonen eskubide eta askatasun gaietan ematen ari den atzerapenaren lekuko direlako ere: bullying eta mobbing homofobikoa, pertsona transexualen bazterketa lan merkatutik eta gizartetik, GSG taldean IHESak duen prebalentzia altua, LGTBI kolektiboa kriminalizatzeko zenbait herrialde-tako legeak eta abar. Egoera dramatiko horien aurrean, LGTBI elkarteei dagokie irmo erantztea eta aniztasuna eta berdintasuna errespetatzeko eta LGTBI pertsonen osotasun fisiko eta moralarentzako arriskuei aurrea hartzeko hartu beharreko neurri guztiak eskatzea.

Era berean, botere publikoetan dagokie LGTBI elkarteei entzutea, horiek egiten ari diren lan sozial goraipagarria aitortzea, eta horiek horrela, pertsonen oinarrizko eskubideak eta oinarrizko zerbitzuak bermatzeko eta sexu joera edo sexu identitatearengatik edozein bazterkeria ekiditeko hartu beharreko erabakiak hartzeko konpromiso sendoarekin erantzutea.

Estatuko eta Euskadiko LGTBI elkarrekin LGTBI gazteei eskaini die urte hau, beraiek jasaten baiute jazarpen eta ziber-jazarpen homofobikoa hezkuntza esparruan. Kolektibo horrek, gaur egun, oraindik ere, bere sexu izaera larritasunez bizi du askotan, gure gizartean etengabe agertzen diren jarrera baztertzaile eta iraingarriengatik, eta beraien inguruan ia ez dute beste LGTBI pertsonen erreferentzia positiborik, askotan horrelakoak ikusezin bihurtzen direlako, batez ere, emakume lesbianak, eta bereziki, landa giroko LGTBI pertsonak.

Hori guztiori kezka iturri da gizarte osoarentzat eta botere publikoen berehalako erreakzioa eskatzen du -beraiei baitagokie gazteen ongizatea bermatzea- jazarpenaren aukako neurri ir-moak hartuz, aniztasuna balore sozial bezala sustatzetik gazteen parte hartzea eta elkartegintza bultzatzuz.

Horregatik guztiarengatik ondorengo erabakiak har ditzala eskatzen zaio Udalbatzarrari:

ERABAKIAK

1. Eskoriatzako Udalak bat egiten du ekainaren 28an, LGTBI harrotasunaren eguna dela-eta, LGTBI elkarteen ospakizun eta errebindikazioekin, eta berariaz adierazten du sexu joera edo identitateagatik LGTBI pertsonen mundu osoan, eta bereziki gure udalerrian, etengabe jasaten duten bazterkeriaren aurka dagoela.

2. Eskoriatzako Udalak LGTBI kolektiboaren eskubideekin eta berdintasunaren aldeko apustuarekin duen konpromiso sendoa erakusteko, aniztasunaren ikur den ostadar bandera udal eraikin publikoetan jarriko du ekainaren 28an.

3. Duten sexu joera edo identitatearengatik beraien herrietan jazarrita egoteagatik bizitza arrisku larrian zutela egiaztatu ondoren asiloa eskatua zuten pertsonei asilo hori ukatzeko era-bakia zuzendu ditzala eskatzen dio Eskoriatzako Udalak Gobernu Zentralari.

4. Eskoriatzako Udalak pertsona transexualen gizarteratzea eta laneratzea eskatzen du, lan bazterkeria egoerak jasan behar izaten baitituzte etengabe, eta sarritan prostituziora baztertuak izaten baitira, eta konpromisoa hartzen du pertsona transexualak laneratzeko udal plan bat egin eta implementatzeko.

5. Gure herrialdean bizi diren immigranteei osasun publikoan berriz ere estaldura unibertsala emateko eskatzen dio Eskoriatzako Udalak Gobernu zentralari; eta hori, populazio osoari era-

giten dion osasun publikoko oinarrizko neurri bezala hartzeko, izan ere, estaldura falta horrek eragin kaltegarria du HIESaren aurkako borrokan.

6. Gizarteak aurkitzen diren maitasun eta sexu aniztasun ikuspegia irakaskuntzan sartzeko eta gazteen artean aurreiritzi eta jarrera homofobikoak desagertarazteko eta horiei aurrea hartzeko ekintzak indartzeko eskatzen dio Eskoriatzako Udalak Eusko Jaurlaritzari.

Mozio honen berri honako hauei emango zaie:

- Osasun eta Barne ministerioei.
- Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailari.
- GEHITU eta EHGAM elkarteei.

2013ko ekainak 17

Izptua.: Juan Luis Merino

Proposamena irakurrita, hitza eskaini da eta ez du inork hitz egin.

Mozioa bozkatuta, onartu egin da, Madinabeitia jauna abstenituta eta bertaratutako gainerako udalbatzarkideek alde bozkatuta.

Aurreko gaiak aztertuta, galde-eskeen txanda aurreratu da, KALERATZEAK STOP taldearen ordezkarien osoko bilkura aretoa etortzeko denbora izan dezenetan beraiek eskatuta gai zerrendan sartutako mozioa azterzeko.

12.- GALDE-ESKEAK.

Ez dago.

Urrutia jauna bilerara etorri da 18:55etan.

13.- KALERATZEAK STOP DEBAGOIENAK “HMEI ORDEZKATZEARI” BURUZ AURKEZTUTAKO MOZIOA.

KALERATZEAK STOP plataformako ordezkari batek ondoren transkribatzen den mozioaren testua irakurri du.

Motibazioa

Pasa den 2012ko apirilaren 28an, banku zerbitzuen bezeroen Babes eta Gardentasuna bermatzen duen 2899/2011 Ministerio-Agindua indarrean jarri zen, bertako 27. artikuluan ondorengo urteetako hipoteka-maileguen interesak zehaztuko dituzten indizeak jasotzen dira.

Aipatutako artikuluan, erabiltzen egon diren indize batzuk eta sortu berri diren beste indize batzuk aurkitzen dira, bestalde, jasotako indizeen artean azken urteotan garrantzi handia izan dituzten indizeak; Kutxen HMEI-a, Bankuen HMEI-a eta EAKK azaltzen ez direla ikus dezakegu.

Hala ere, jada aipaturiko Ministerio-Aginduaren arabera indize hauen behin betiko desagerpena beren argitaratzetik eta urte betera emango da, betiere dagokion erregimen iragankorra finkatzen baldin bada.

Horrek zera esan nahi du, desagertu beharreko indizeen desagerpena erreala izan dadin, Gobernuak, Dekretu edo Ministerio Agindu bati esker, desagertuko diren indizeak dituzten eta beraien klausuletan ordezkorik begiesten ez dituzten etxebizitza maileguetan ezarri beharko den ordezko interes mota finkatu behar duela.

Kutxak onarturiko hipoteka-mailegu kopuru garrantzitsu batek indizetzat Kutxen HMEI-a du, eta ordezko indizetzat Euriborra +1 ezartzen dute. Legez ezarrita dagoen aldaketa honek, familia ugariren egoera ekonomikoari arnasaldi bat emango lioke, hilabete eta mailegu bakoitzeko 300 edo 400 € bitarteko aurrezpena eragingo lukeelako.

Baina Gobernuak ez du behar den behin behineko erregimena finkatu, eta ondorioz familien kalte eta erakundeen onurarako, Kutxen HMEI-a mugagabekи luzatuko da.

Gobernuak behin behineko erregimena ez ezarri izana, ez da ahazte kontua izan, hausnarketa eta interesen azterketa baten ondorioz harturiko erabakia baizik. Horrela, erakundeentzako onuragarria den eta filialentzako erabat kaltegarria den egoera mantentzea aukeratu dute.

**Horregatik, Kaleratzeak Stop Debagoiena kolektibotik, zera eskatzen diogu
Eskoriatzako Udalbatzari:**

1. Ekonomia Ministerioari, honen utzikeria tamalgarriaz kexu, berak ezarri behar duen behin behineko erregimena ahalik eta lasterren finkatu behar duela gogorarazi nahi diogu, honek Kutxen HMEI-aren erabateko desagerpena eragingo baitu. Honek izugarrizko garrantzia du, batez ere garai hauetan, datozen murriketek familiak ekonomietan, are eta desoreka handiagoa eragingo dutenean
2. Kutxabanki, honen hipoteka bakoitzaren klausuletan agertzen denaren arabera, Kutxen HMEI-aren berehalako ordezkapena eskatzea. Honetarako ez du behin behineko erregimenaren ezartzea gauzatu arte itxaron behar, beronen edukia garrantzirik gabekoa baita.

Madinabeitia jauna eta Urrutia jauna abstenituta, eta bertaratutako gainontzeko udalbatzarkideek alde bozkatuta, Udalbatzarrak mozioa onartu du.

Urrutia jaunaren boto azalpena: Urrutia: gu abstenu egingo gara. Gaiaren muinarekin ados gaude, baina, Kutxaren gainean egiten diren aipamenei buruz hainbat kontu zehaztu gura ditugu. Lehendabizi, urriaren 28ko 2899/2011 aginduan aipatutako indizeak eta tipoak desagertzeko ezarritako epea urtebetekoa da, agindua eta hori garatzeko ekainaren 17ko 5/2012 zirkularra indarrean sartzen direnetik kontatzen hasita; beraz, 2013ko urriaren 6an desagertuko lirateke. Hortaz, Gobernua epe barruan dago onartutako maileguentzako trantsizio erregimen betetzeko, eta erregimen horren pean jarri beharko litzateke Kutxabank. Espainiako Banku Nazionalak esaten duenez, erregimen hori 2013ko urriaren 6a baino lehen onartuko da. Bestalde, Kutxabank, Estatuko gainerako banketxeak bezala, derrigortuta dago agindu horretan ezarritakoa betetzera. Kutxbankek beste modu batera jokatuko balu, horrek desabantailan utziko lioke lehia aldetik Euskadin aritzen diren estatuko beste banketxe batzuen aurrean, gure ustez argi eta garbi kaltetuz gure Iurrealdeko ekonomia. IRPH eta CECA erreferentzi indizeak eta tipoak ez dira gehiegizkoak, Kutxak bere garaian komertzializatu zituenean legeak ezarritako gardentasun baldintzakin egin zen. Azkenik, esan nahi dut aurreko guztiak ez duela kentzen gu ere Kutxbankei aldi baterako zaitasunak dituzten bezeroen egoera zehatzak baloratzeko eskatzearen alde egotea, horrela, kasuz kasu, eta inguruabarrik baloratuz, esandako tipoekiko beste tipo ezberdin bat ezartzeko aukera izan, nahiz eta aprobatu gabe egon aldi baterako erregimen.

Eta beste gairik ez dagoenez, amaitutzat eman da bilkura 19:20an. Eta nik, idazkariak, egiaztatzen dut.

1.- APROBACIÓN DE ACTAS DE SESIONES ANTERIORES.

No hay

2.- COMUNICACIONES DE LA ALCALDÍA.

Se informa de las resoluciones adoptadas por la Alcaldía hasta el día 20 de junio de 2013 haciéndose entrega de una copia del extracto de las mismas.

Se da cuenta de forma expresa de las resoluciones que a continuación se transcriben:

RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA

NÚMERO: B 13/00666

FECHA: 2013/06/04

ASUNTO: MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS Nº 12

EXPEDIENTE: 2013KKRA0009

ASUNTO: Aprobación del expediente nº 12 de modificación de créditos mediante créditos adicionales

Examinado el expediente de modificación de créditos mediante créditos adicionales que afecta al presupuesto de este Ayuntamiento.

Según el informe emitido por la Secretaria-Interventora, dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos y trámites establecidos en el artículo 34 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Gipuzkoa.

Teniendo en cuenta lo anteriormente mencionado y en uso de las competencias otorgadas por el artículo 34.3 de la Norma Foral y el artículo 6.1 de la Norma Ejecución Presupuestaria aprobada para el ejercicio del 2012.

RESUELVO

Primero.- Aprobar el expediente de modificación de créditos mediante créditos adicionales que afectan al presupuesto del ejercicio actual de este Ayuntamiento según la propuesta y el resumen de capítulos siguiente:

CRÉDITOS ADICIONALES

Capítulos	Denominación	Aumentos
6	Inversiones reales.	4.200,00
TOTAL DE INCREMENTOS...		4.200,00

RECURSOS QUE FINANCIAN

Capítulos	Denominación	INCREMENTOS
8	Finanzas activas	4.200,00 €

TOTAL		4.200,00 €

Segundo.- Dar cuenta de esta resolución al pleno en la siguiente sesión.

En Eskoriatza, a 4 de junio de 2013. EL ALCALDE

RESOLUCIÓN DE ALCALDÍA

NÚMERO: B 13/00683

FECHA: 2013/06/12

ASUNTO: MODIFICACIÓN DE CRÉDITOS Nº 13

EXPEDIENTE: 2013KKRT0004

INTERESADO: ESKORIATZAKO UDALA

Examinado el Expediente de Modificación de Créditos nº 13, mediante transferencia de créditos entre partidas presupuestarias de Gastos que afectan al Presupuesto de este año de este Ayuntamiento.

Según el informe de la Secretaría-Interventora, dicho expediente está ajustado a la normativa que le es de aplicación, en concreto a los requisitos establecidos por el art. 29 de la Norma Foral 21/2003, de 19 de diciembre, Presupuestaria de las Entidades Locales del Territorio Histórico de Guipúzcoa.

Haciendo uso de las competencias otorgadas en los apartados 3 y 4 del artículo 29 de la citada Norma Foral,

RESUELVO

